



Biribilko
Bilbo Komertziala

Biribilko 2023-2024 ikastaroetako ikasleen asebetetze-mailaren azterketa





Jarraian, Biribilko 2023-2024 ikasturteko euskara ikastaroetan parte hartu duten merkatarri, ostalari eta zenbait zerbitzutako langilek ikastaroarekiko azaldutako asebetetze-maila eta egindako balorazioaren emaitza nagusiak eskaintzen ditugu.

2023-2024 Ikastaroen ezaugarriak eta matrikulazioari buruzko datu nagusiak

1. Ikastaroen eskaintza: OINARRIZKOA ala HOBETZEKOA

	HARTZAILEAK	HELBURUA	IRAUPENA	ORDAINDU BEHARREKO Matrikularen PREZIOA
1 EUSKARA KOMERTZIALEKO OINARRIZKO IKASTAROA	 Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Bilboko establezimenduetako merkatarri edota enplegatuenak.	 Ahozko oinarritzko komunikazioa lantzea, merkataritzako egoera aruntetarako hizkuntza-oinarriak ematea.	 90 ordu	 90 € ikasturte osoarengatik
2 EUSKARA KOMERTZIALA HOBETZEKO IKASTAROA	 Euskaraz zerbait hitz egiten dakiten Bilboko establezimenduetako merkatarri edota enplegatuenak.	 Merkataritza arloko ahozko eta idatzizko euskara maila hobetzea.	 90 ordu	 90 € ikasturte osoarengatik

2. Datak, egunak eta ordutegiak

	DATAK (aukeratzeko: 1. aukera ala 2. aukera)	ASTEKO KLASE EGUNAK (astean 2 egun)	KLASE ORDUTEGIAK (aukeratzeko: goizez, eguerdiz ala arratsaldez)
1 AUKERA	 Hasiera: 2023ko urriaren 16a Amaiera: 2024ko ekainaren 17a	 Astelehenak + Asteazkenak	 <input type="checkbox"/> 1. Goizez: 8:00 - 9:30 <input type="checkbox"/> 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45 <input type="checkbox"/> 3. Arratsaldez: 17:00 - 18:30
2 AUKERA	 Hasiera: 2023ko urriaren 17a Amaiera: 2024ko ekainaren 6a	 Astearteak + Ostegunak	 <input type="checkbox"/> 1. Goizez: 8:00 - 9:30 <input type="checkbox"/> 2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45 <input type="checkbox"/> 3. Arratsaldez: 17:00 - 18:30

3. Biribilko ikastaroetan matrikulatzeko informazioa

MATRIKULATZEKO EPEA **2023ko irailaren 4tik urriaren 6ra arte**

**MATRIKULATZEKO
MODUAK ETA KLASEAK
HARTZEKO LEKUAK**

Matrikulazioa bi modutara egin daiteke:

- Biribilko web orriaren Heziketa atalean aurkitzen den [izen-emate formularioa](#) online bete
- Ondoren aipatzen den euskaltegiren batera joanda. Klaseak ere horietan emango dira:

BILBO ZAHARRA, Posta kalea, 8 (Tel: 94 4158292)

GABRIEL ARESTI, Done Bikendi kalea, 2 – 4. solairua (Tel: 94 4237591)

INDAUTXUKO AEK, Urkixo Zumarkalea, 88 – 1. A (Tel: 94 4413474)

JUAN MATEO ZABALA, Gordoniz kalea, 22 (Tel: 94 4221388)

LIZARDI AEK, Txakur kalea, 1 – 1. (Tel: 94 4168200)

MATXINTXU AEK, Ramón y Cajal Etorbidea, 8 (Tel: 94 4752233)

SANTUTXUKO AEK, Arbidea kalea, 21 (Tel: 94 4117656)

ULIBARRI EUSKALTEGIA, Gardoki kalea, 3 – 1. (Tel: 94 4162472)

4. Ikastaroetan matrikulatutakoei eskainiko zaizkien zerbitzuak

Biribilko ikastaroetan matrikulatzen diren pertsonen ondorengo **zerbitzuak eskuratzeko aukera** izango dute:

- Klaseetara gutxienez %75eko asistentzia ziurtatzen dutenek ikastaroa egin izanaren [egiaztatgiri](#) bana jasoko dute.
- Jarduera adar desberdinetako euskara-gaztelania [hiztegi komertzial espezifikoak](#) doan jasotzeko aukera izango dute.
- Lan egiten duten establezimenduetan, jendaurrean ipintzen diren [mezu idatziak gaztelaniatik euskarara itzultzeko doako zerbitzua](#) eskainiko zaie.

- **125 merkatari** izan dira Biribilko 2023-2024 ikastaroan matrikulatu direnak; azken ikasturteetan baino gehiago (100 inguru), nahiz eta ez den pandemiaren aurreko urteetako kopuruetara iristen (150 inguru).
- Aurreko ikasturteetako joerari eutsiz, ikasle gehienak (10etik 6) **euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroan** matrikulatu dira.
- Guztira, **13 talde osatu dira**: 8 oinarrizko mailan eta 5 hobekuntzakoan.
- Klaseetara joateko egunei dagokionez, ikasle gehienek (%75ak) **astearte eta ostegunetako** txanda aukeratu dute.
- Ordulegiari dagokionez 10 ikasletik 6k, **eguerdiko ordutegian** aukeratu dute (14:15etik 15:45era).


1. Taula: Biribilko 2023-2024 ikastaroen matrikulazioari buruzko datu nagusiak

		Kop.	%
Ikastaro mota	Euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroa (90 ordukoa)	74	59,2
	Euskara komertziala hobetzeko ikastaroa (90 ordukoa)	51	40,8
Klase egunak	Astelehen eta asteazkenak	31	24,8
	Astearte eta ostegunak	94	75,2
Klaseen ordutegia	Goizez: 8:00-9:30	42	33,6
	Eguerdiz: 14:15-15:45	75	60,0
	Arratsaldez (17:00-18:00)	8	6,4
GUZTIRA		125	100,0

Iturria: Bilboko euskaltegiak. Siadecok landua, 2024

Ikasleen ezaugarri soziodemografikoak


1. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak generoaren arabera-bilakaera (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

Ikasle gehienak emakumezkoak dira (ia % 72). Ohikoa da joera hau Biribilko ikastaroetan, merkataritzan eta hainbat zerbitzutan orokorrean emakumezkoak direlako nagusi. Hala ere, aurten iaz baino altuagoa da gizonezkoen presentzia.

2. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak adinaren arabera-bilakaera (%)



Iturria: Siadeco, 2024.


Adinari begiratuta, ikasleen batez besteko adina mantendu egin da azken ikasturtean: aurten 45,4 urtekoa da, eta iaz 45,6koa.

Ikasleen %39 41-50 urte artekoak dira eta %30ak 51 urte ala gehiago dituzte.

40 urtetik beherakoak ia %31dira

Ikasleek lan egiten duten establezimenduaren sektorea eta kokatuta dagoen auzunea


3. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleek lan egiten duten establezimenduaren sektorea (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

Biribilko ikastaroetako ikasleen %49 merkataritza establezimenduetan ari dira lanean, %30 ostalaritza establezimendu batean eta %22 bestelako zerbitzuak eskaintzen dituen establezimendu batean¹. Azken ikasturtean gora egin du ostalaritza establezimendu batean lan egiten dutenen proportzioak, eta aldiz, jaitsi merkataritza establezimendu batean ari direnena.

4. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleek lan egiten duten establezimendua kokatuta dagoen auzoa (%)



Iturria: Siadeco, 2024.


Biribilko ikastaroetako %18k, Indautxun kokatutako establezimenduren batean egiten dute lan, beste %18k Zazpi Kaleetako batean eta %17k Abandoko batean. Beraz, hiru auzo horietako establezimenduren batean lan egiten dute ikasleen erdiak baino zertxobait gehiagok. Santutxun lan egiten dute ikasleen %13k.

Aurreko ikasturteko datuekin alderatuta, Abandoko establezimenduetan lan egiten duten ikasleen pisua jaitsi egin da (aurten %17 eta iaz %23). Aldiz, zertxobait igo da Indautxuko eta Zazpi Kaleetako establezimenduetan lan egiten dutena (iaz %15 eta %17, hurrenez hurren).

¹ Bestelako zerbitzuetan ondoko establezimendu-motak sartzen dira: ileapaindegiak eta estetika zentroak, albaitaritzak, osasun arloko zerbitzu pribatuak, diseinu eta publizitate agentziak, bidaiaria-agentziak, higiezin agentziak...

Euskararen balioa bezeroak asebate eta fidelizatzeko

5. **Grafikoa:** Euskarak zenbateraino lagun dezake bezeroak asebate eta fidelizatzen? (%)



Iturria: Siadeco, 2024.


Ikasle gehien-gehienek adierazten dute euskara bezeroarekiko komunikazio komertziala hobetzeko baliabide garrantzitsua dela: izan ere, ikasleen %78k adierazi dute euskarak bezeroak asebate eta fidelizatzen asko ala nahikoa lagun dezakeela. Proportzio hau, iazko ikasleen artean neurtutakoa baino altuagoa da (iaz, %72 izan ziren)



Biribilko
Bilbo Komertziala

Euskara ikastaroez egindako balorazioa

6. **Grafikoa:** Ikastaroen hainbat alderdiren inguruan ikasleek egindako batez besteko balorazioa, ikastaro motaren arabera (0tik 10erako eskalan)



Iturria: Siadeco, 2024.

Biribilko ikastaroen inguruan ikasleek egindako balorazioa, oro har, oso positiboa izan da: 0tik 10erako eskala batean, 9,12ko batez besteko puntuazio orokorra eman diote. Ikastaroen alderdi desberdinen balorazioak, 9,71 eta 8,58 puntu artean daude:

- Puntuaziorik altuena (9,5etik gorakoa), ondorengo hiru alderdiek lortzen dute: irakasleak (9,71), ikasle taldeak (9,55) eta euskaltegiaren kokapenak (9,50).
- Puntuaziorik baxuena jasotzen duten alderdiak berriz, ondoko hauek dira: Ordutegia (8,90); ikastaroa emateko datak (astean bi egunetan) (8,86) eta klaseko euskara mailaren homogeneotasuna (8,58) (klase berean elkartzen diren ikasleen maila berdintsuago izatea eskatzen da).

Ezagutzan pertzibitutako aurrerapenak, ahoz eta idatziz

2. Taula: 0tik 10erako eskala batean, baloratu zein neurritan hobetu den zure euskara maila ahoz eta idatziz, ikastaroa hasi baino lehen zenuenarekin alderatuta, ikastaro motaren arabera (0=ez da batere hobetu eta 10=asko hobetu da)

Baloratutako alderdia	Ikastaro motaren arabera		
	Oinarrizko ikastaroa	Hobetzeko ikastaroa	Guztira
Baloratu zein neurritan hobetu den zure euskara maila ahoz, ikastaroa hasi baino lehen zenuenarekin alderatuta	5.80	7.37	6.47
Eta zein neurritan hobetu da zure euskara maila idatziz, ikastaroa hasi baino lehen zenuenarekin alderatuta	5.77	7.00	6.30
Batez besteko orokorra	5.78	7.18	6.39


Iturria: Siadeco, 2024

Ikasleek, oro har, modu nahiko positiboan baloratu dute, ikastaroek euren ahozko eta idatzizko euskara mailan izan duten eragina: ezagutzan pertzibitu duten aurrerakuntza baloratzeko eskatu zaie, 0tik 10erako eskala bat erabiliz (0=ez da batere hobetu eta 10=asko hobetu da):

- Ahozko ezagutzan izan duten hobekuntza orokorra, 6,47 punturekin baloratu dute.
- Idatzizko euskara mailan izandako hobekuntza 6,30 punturekin baloratu dute.

Establezimenduko euskararen erabileran izandako eragina

7. Grafikoa: Biribilko ikastaroetara joaten hasi zarenetik, zein neurritan erabiltzen duzu euskara establezimenduan? (%)




Iturria: Siadeco, 2024

Ikasleen ustez, Biribilko ikastaroek eragin adierazgarria izan dute euskararen erabilera komertzialean: %24k adierazi dute, ikastaroetara joaten hasi zirenetik askoz gehiago erabiltzen dutela euskara establezimenduan, eta beste %56k lehen baino zerbait gehiago. Hots, %80k lehen baino gehiago erabiltzen dute euskara establezimenduan.

Biribilko ikastaroekiko asetze-maila eta aholkatze-maila beste merkatarri batzuek ikastaroetan parte har dezaten

8. **Grafikoa:** Ikastaroak zein mailatan erantzun dien ikasleen espektatibei eta zenbateraino aholkatuko lieketen beste merkatarri bati (batez besteko balioak 0tik 10erako eskalan)



Iturria: Siadeco, 2024.

Biribilko 2023-2024 ikastaroek, ikasleek hasi aurretik zituzten espektatibei maila adierazgarrian erantzun dietela esan daiteke: 0tik 10erako eskala batean (0=ez ditu batere bete eta 10=gutziz bete ditu), 7,92ko puntuazioa eman diete.

Beste merkatarri batzuei ikastaroetan matrikulatzea zenbateraino gomendatuko lieketen adierazteko eskatu zaie ikasleei, 0tik 10erako eskala bat erabiliz (0=ez liekete batere gomendatuko eta 10=asko gomendatuko liekete). Ikasleek adierazitako gomendatze-maila oso altua da: 9,18.